ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Esp. kodea: 2026KIRE0006

NIK, IGOR SANCHEZ IDOETAK, ARAMAIOKO UDALEKO IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT:

ARAMAIOKO UDAL PLENOAK, 2026KO URRIAREN 13A EGINDAKO EZOHIKO BILKURAN, ONDOKO HGIRIGINTZA ETA AUZOAK BATZORDEAREN DIKTAMENA ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO ZUELA:

SUÑA AUZOKO URBANIZAZIO-OBRAK KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

BESTEAK BESTE AKORDIO HAU HARTU ZUELA:

Lehenengoa.- Suña auzoko urbanizazio-obrak kontratatzeko 2026KIRE0006 espedientea onartzea.

Bigarrena.- Kontratua arautuko duen Administrazio Klausula Berezien Agiria onartzea, bai eta espedientean jasotako gainerako kontratu-dokumentazioa ere.

Hirugarrena.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 1.178.631,79 eurokoa, BEZa barne, eta kontratuaren balio zenbatetsia 974.075,86 eurokoa, BEZa kanpo, direla onartzea.

Laugarrena.- 1.061.942,63 euroko aurrekontu-gastua onartzea, espedientean jasotako kontabilitate dokumentazioaren arabera eta BEZ berreskuragarriari dagokion kontabilitate-tratamenduaren kalterik gabe.

Bosgarrena.- Obraren finantzaketarako EREIN 2026 programaren esparruko dirulaguntza eskatzea, eta Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidezko finantzaketa eskatzea, dagokion deialdiaren eta baldintzen arabera. Alkateari beharrezko izapideak egiteko eta eskaerei lotutako agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

Seigarrena.- Kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez eta izapidetze arruntaz adjudikatzeko prozedura irekitzea.

Zazpigarrena.- Kontratazio Mahaia honako osaerarekin izendatzea:
— Lehendakaria: Asier Agirre Mugartza, Alkatea.
— Bokala: Igor Sanchez Idoeta, Idazkari-kontuhartzailea.
— Bokala: Oier Ezquerra Ibarraran, Arkitekto teknikoa.
— Bokala: Judith Arriolabengoa Unzueta, Administraria
— Mahaiko idazkaria: Aitziber Zumalde Pagoaga, funtzionarioa.

Zortzigarrena.- Lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, dagokion kontratu-dokumentazioarekin batera.

“

HONELA GERA DADIN, 2568/1986 ERREGE DEKRETUAREN 206. ARTIKULUAK AIPATZEN DUEN OHAR EDO SALBUESPENAREKIN ETA HONI DAGOKION AKTA ONARPENAK SOR DITZAKEEN HITZ ALDAKETEN ERRESERBAZ, ZIURTAGIRI HAU LUZATU ETA SINATZEN DUT ALKATE JAUNAREN ONIRITZIAREKIN, ARAMAION

AGIRRE MUGARTZA ASIER
2026/10/13

Sinatzailea	Idazkari-kontuhartzailea Igor Sanchez Idoeta
SANCHEZ IDOETA IGOR 2026/10/13	Alkatea Asier Agirre Mugartza
URL	https://munigex.net/r/0/257/AAAA2N4NT.N88I
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu	